

## URTAROEN INGURUKO OHITURAK

### 1. Azalpena

Jarduera hauen helburua da gure tradizioan urtaroeekin lotutako errituak, sinesmenak, ohiturak eta hizkuntza esamoldeak ezagutzea. Horretarako gaiari buruz ikasleek dakitenaren, artikulua laburren eta kanten lanketa egingen da.

Dataren arabera irakasleak aukera dezake urtaroa eta garai horrekin lotutako informazioa.

### 2. Jarraibideak

#### UDAZKENEAN, ARIMEN GAUA



[Dokumentala \(13 min.\)](#)

Dokumentalean agertzen diren zaharrek kontatzen dituzten ohiturak ([bideo osoa: 3 min.](#)) ohikoak ziren Erriberako herrietan zein Lakuntzan, Imotzen edo Lesakan, esaterako. Izan ere, Europa osoko kultura tradizionalan zabalduko ohiturak izan dira arimen egunarekin lotutakoak. Esan daiteke, gurean, hasiera ematen ziotela neguko festen zikloari: Arimen Gaur, San Tomas, Olentzero, Santa Agata eta Inauteriak. Neguko festen ezaugarri komuna zen eskean ibiltzea, gehien-gehienetan gazteak edo haurrak etxez etxe ibiltzen ziren jakiak edo gozokiak biltzen eta, askotan, abestuz deitzen zuten bizilagunen arreta. Herri bakoitzak bazuen bere aldaera; guztion helburua, ongi pasatzea eta adiskideekin egotea.

Etxauribarreko herrietan, baita Arraitza, Muru-Asterain, Paternain eta ingurukoetan, etxez etxe eske-errondan erabiltzen duten kanta:

“Tximurrie, manurrie, kankan kankan txinurrie. Bota bota kastañera lurrera.”

“Xanduli, manduli, kikirikiiii... eman goxokiak guriiii”

“Txingila mingila kurruskairua, ireki ezazu armairua”

Beriain, Luzaiden, Malerrekan edo Artzibarren:

“Zingila mingila kurruskario, sagarrak merke ta udareak kario”

Baztan-Bidasoako hurrek “mattuttin errain dut” esan eta helduek dirua ematen zieten.

Argi dago oso ohitura zabaldua izan zela Nafarroa osoan. **Zuen herrian edo aitona-amonen herrian horrelakorik egiten zen? Eta, gaur egun, zer eta nola ospatzen da?**

Material eta informazio gehiago:

[gaubeltza.eus](http://gaubeltza.eus)

[Makilaje tailerra](#)

[Kalabaza tailerra](#)

## NEGUAN, SUA ETA URA

Neguko festen zikloa Arimen Gauak zabaltzen badu ere, ospakizunen gailurra neguko ekinozioarekin heltzen da, dudarik gabe, eta harekin, Olentzero. Sukilaren edo eguberrietako enborraren pertsonifikazioa da, ziur aski, Olentzeroren jatorria. **Sukila** gabon gauean pizten zen eta sutan mantentzen zen urteberria hasi arte. Piztutako su horrek neguaren amaiera eta urte zaharra adierazten ditu, eta era berean, urte berrian sartzen laguntzen du. Festa horren bueltan Olentzero ere agertzen da, pertsonaia beldurgarria eta barregarria zen, era askotako panpinez irudikatuta.

Olentzeroren errepresentazioa aldatu da gizartearekin batera, eguberrietako beste ohitura batzuk aldatu diren bezala: eske-errondan ibili beharrean opariak erostera joaten gara; norberak edo auzoan irudimenak agindutako panpina egin eta jaia antolatu beharrean ikuskizun bihurtutako kalejirak ikustera ateratzen gara...


Garai batean, oso zabaldua zegoen neguko ziklo osoan eskean ibiltzea. Tradizio horren aldaera dira Urdiainen gaur arte gorde diren **“ur goiena, ur barrena”** ohitura eta koplak. Lehen, urtero berritzen ziren erritual horiek, baita Nafarroako

beste leku askotan ere, esaterako, Baztanen, Basaburuan, Imotzen, Larraunen, Arakilen... Urdiaingo kasuan mendeetan eutsi zaio ohitura honi:

[Navarra 4 estaciones](#) (Pío Caro Baroja, 1972):



[Jone Pagalday, 2016:](#)



Zer aldeak ikusten dituzue bi bideoen artean? Nola aldatu da tradizioa?

Hortaz, urtezahar gauean Eguzkia gailenduko dela berresteko, eta gorputza eta arima garbitzeko, ur berria edan eta abestu:

[“Ur goiena, ur barrena urte berri egun ona”](#)

Izotzetan elurretan  
abenduko gau luzeetan  
bertze guziak ohean  
eta gu gaixuok oinutsetan

Etxe honetan sar dadila  
bakearekin osasuna  
bakearekin osasuna,

onarekin ondasuna.

Arantzazu zer dakarzu?

-Ur goiena, ur barrena,  
ur goiena, ur barrena,  
urteberri egun ona

Etxe hontako nagusi jaunak  
poltsea txintxirrinduna  
poltsea txintxirrinduna  
zilarrez ezpataduna

Gure baratzean belar ona,  
hark botatzen du usai ona  
goian goian ilargia,  
erdi erdian krabelina.

[Informazio gehiago](#)

## UDABERRIAN, NATURA

**“Etorri da kukua, joan da negua”**

Hala da, kukuak kantatzen duenean, udaberria gure artean dugunaren seinale izaten da.

Herri jakiturian ongi sustraituta dagoen ohitura da udaberriaren hasieran mendira poltsikoan txanpon batzuk sartuta joatea; izan ere, kukuaren hotsa estreinakoz entzutean sakelan dirua duenak urte guztian izanen du.

Kukuaren soinuak poza ematen du loreen eta landareen jaioberritzearekin batera heltzen delako. Tradizioan gorde dira landareak eta uztak babesteko eta natura goresteko ohiturak. Antzinako udaberri jaien aztarna da **Maiatzeko zuhaitza** herriko plazan zutik eta apainduta jartzea, herria gaitz guztietatik babesteko. Europa osoan gorde dira ohitura horren aztarnak.



### [bideoa](#)

Amezkoan, adibidez, baratze eta uztak babesteko jarri ohi zuten. Leku askotan kuadrilak elkartzeko eta festa egiteko aitzakia zen Maiatzeko zuhaitza herriko plazan jartzea, baita mendi tontorretan ere (esate baterako, Etxarri-Aranatzen).

Maiatzeko zuhaitzaren bidez uzta berriak babestu nahi dira, izan ere, udaberrian ere badaki eguraldi txarra egiten. Badakizue zer diren [Zozomikoteak](#)?



### [bideoa](#)

Asko dira eguraldiarekin lotutako kondairak eta esaera zaharrak. Zenbat ezagutzen dituzue? Eta zuek asmatuak?

Adibide batzuk:

- San Tomas eguna, argitu orduko iluna
- Gabon, dagoenean bonbon, ez dagoenean egon
- Urtarril hotza, neguaren bihotza
- “Elur-melur, ez naiz zure/hire beldur, baditut etxean arto eta egur”

## Gehiago

### **UDAN ONA BARNERA, GAIZTOA KANPORA!!**

Eguzkia goienean dagoenean sanjoan-suak txarra erretzeko ahalmena dauka. Nahikoa omen da atzean utzi nahi dena paper batean idaztea, sutara botatzea eta honakoa edo antzeko zerbait esatea:

“ To zan, zaharra eraman eta berria ekar zan!”

“Txarrak eraman eta onak ekarri!”

Suaren gainetik jauzi egin baino lehen, ez da ahaztu behar formula magiko zaharra errepikatzea:

“ San Joan, San Joan berde,  
artoa eta garia gorde,  
lapurrak eta gaiztoak erre.  
Biba San Joan berde!”

Baina ez bakarrik suak, urak ere botere miresgarria hartzen du urteko gaurik motzenaren bukaeran, gaixotasunak sendatzeko eta ikusten ez dena ere garbitzeko ahalmena baitauka. Solstizioaren eguneko egunsentian itsasoan edo errekan murgiltzea, iturrietan eskuak eta aurpegia garbitzea, zelaietako ihintzez oinak bustitzea... horiek guztiek balio omen dute berritzeko eta indartzeko.

Urteroko erritu horietan pertsonen arteko loturak estutzen dira. Harreman sareen irudia dira suaren edo zuhaitzen inguruko soka-dantzak, zortzikoak edo kintoen dantzak. Ohitura horien adibidea da Urdiango neska gazteek abesten duten [San Juan Kantaita](#) (dantzan.eus):



Alex Sarduik egindako bertsioa entzun nahi?

## [San Juan kantaita](#) (Urdiain)

Sinesmenak dio San Joan egunean hartutako landareek babesa ematen dutela urte osoan, bereziki lizar edo elorri-zuri adaxkak badira. Halaber, sendatzeko gaitasun berezia omen du San Joan egusentian hartutako [zazpi belarrez egindako ukenduak](#). Errezeta tradizionala ikasi nahi?



- [Hypericum perforatum](#) (= San Joan belarra / Santio belarra)
- [Berbena belarra](#)
- [Pasmo-belarra](#)
- [Plantaina](#)
- [Zaingorria](#)
- [Asuna](#)
- [Intsusa](#)

### 3. Oharrak

#### 3.1. Prestaketa

Irakasleak erabakiko du zein urtaro landu, garaiaren arabera.

#### 3.2. Moldaketak

Urtaro bakoitzean azalpenean agertzen ez diren ohiturei buruz ikasleek dakitena galde daiteke: inauteriak, Santa Agata, norberaren herriko jaietako ohiturak...

#### 3.3. Material osagarria

- Edozein urtarotako ohiturak landu eta gero, egokia izan daiteke Skabidean [“Urtaroen doinua”](#) kanta entzutea.
- Esaera zahar gehiago:
  - *San Juanetan festak, alaitzeko mutil eta neskek.*
  - *San Juanetan kuku, San Pedrotan mutu.*
  - *Eguzkiak San Joanetan dantza.*
  - *Gaur da San Juan, bihar juan zan.*

- *Urteberri, urtezahar, Martxelino galtza zahar*
  - *Urtats, Urteberri, zoroak ere igarri*
  - *Ilbeltza egiten badu txuri, ardiak haziko du; ilbeltza egiten badu hil beltz, ez ardi eta ez axuri*
  - *Izotzila, hotzak hila; otsaila firili-faraila; martxoa dinbirri-danbarra; apirila biribila, urdandegian hila.*
  - *Eguzkiak erretzen badu urtarrila, zoaz eske-zakuaren bila*
  - *Izotzileko elurra, burnia; otsailekoa, altzairua; martxokoa, harria; apirilekoa, lurra; eta maiatzekoa, gazura*
- Jarraibideak atalean, zazpi belarrez osatutako ukendua egiten ikasteko Garbiñe Larrearen azalpen-audioa txertatu da. Aditu beraren [bideoa](#) (etb1, Txoriene, 2019/06/25) edo liburua (“Sendabelarrek dakitena: ezagutu bildu eta erabili”, Argia) ere erabil daitezke, horrelako euskarriak hobesten badira.
  - [Kukua](#), Kirmen Uriberen poema.
  - Informazio eta material gehiago: [urtesasoia.com](http://urtesasoia.com)

#### 4. Iturriak

Udazkena: [era.eus-eko artikulua](#) (moldatua)

Negua: [era.eus-eko artikulua](#) (moldatua)

Uda: [era.eus-eko artikulua](#) (moldatua)